

## "Talde bitxi bat"

*El Mundo del País Vasco*, 1992-01-31.

"Gu", agintzen daudenak dira, eta kazetaritza euskaraz egiten ari garen "besteak" osatzen dugu "Talde txiki bat". Taldetxo hau da Itziar Albak, Txomin Aurrekoetxea ondoan zuela, herenegun Gasteizko Legebiltzarrean aipatu zuena. Kazetaritza euskaraz egiten ari garen gutxi batzu hauek gaude euskara idatziaren miserian. Orain hogeitun urte ere, eta guzti, purgatorioan sartuta, gutxien esateko, zebiltzatenak ziren euskara idatzia aurrera atera zutenak, tartean jeltzaleak, Mitxelena eta Euskaltzaindia maisu genituela, eta betiko zeru gardenetan geratu ziren euskara garbi eta osoaren aldekoak. Juanito Ajuriagerrari esker, honek emana baitzidan baimena, sartu nuen h-dun euskara Alderdi aldizkarian; bide beretik gero h-dun euskara ofiziala Jaurlaritzako Boletín Ofizialean (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), eta Deia egunkarian, Jaurlaritza jeltzaleari esker sartu zen gero Irrati, Telebista, "Habe" eta besteko kurpil handian. Orduan ere baziren "mamuak" euskararen inguruan, orain legez. Egunkariaren sorreraz EAJak susmo txarrak izan zituela aitortu zuen, nire lagun Txomin Aurrekoetxea alboan zuela, Itziar Alba ordezkariak: "Talde txiki batek bultzatu zituen eta zalantzak sortu zuen EAJ, Kulturari eta gizartean". "Ikusi behar da ondo osatuta dagoen, etorkizuna denei zabaldua dagoen... Harremanetan gaude eta horregatik ez gara sartuko non sartzen garen jakin gabe. Ikusi behar da baldintzak betetzen dituzten". Bai. Egia da honetan ari garela orain urtebete, Jaurlaritzak norbait edo norbaitzuk gure tartean lekuko izan daitezten, baina oraindik honetan gaude. Nola egongo dira, bada, gurekin, gurekin batera egunkaria egitera etortzen ez badira!